



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 23a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Arasko Udalari, bizi duen egoera larria gainditze aldera, diruz laguntzeko asmorik ba ote duen jakiteko, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (5. or.).
- Galdera, jakiteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zergatik ez duen hezurretako dentsitometria egiteko beharrezkoa den teknologiarik, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (5. or.).
- Galdera, "San Frantzisko Xabierkoa" zentro psikogeriatrikoaren etorkizunari begira Osasun Departamentuak duen proposamenari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (6. or.).
- Galdera, Etxalarko Landagain ikastetxe publikoko irakasleei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Bidasoan ibaian ugalketarako bideratutako izokin-arrautzei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuak Biblioteca Nueva argitaletxearekin lau liburu argitaratzeko duen akordioari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (8. or.).
- Galdera, nanoteknologiako ikerkuntza zentroaren kokalekuari eta betetzeko eperari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (9. or.).
- Galdera, ezgaituen zentro berekietan egin beharreko inbertsioei buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (10. or.).

—Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara antolatu diren ekitaldi eta kontzertuei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (10. or.).

—Galdera, jakiteko Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izendapen proposamena (12. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da CORMINEkin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan.

Zioen azalpena:

Beharrezkoak dira ezgaituei eta beren familiei laguntza ematen dieten entitateak.

Argi dago lan handia egiten dutela, eta, askotan, administrazioak eta zerbitzu publikoek ematen ez duten laguntza bermatzen dutela.

Nafarroak eskumen osoak dauzka laguntza-aren, gizarte ongizatearen eta ezgaitasuna duten pertsonen sustapenaren eta gizarteratzearen arloan.

Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeratarako abenduaren 3ko 51/2003 Legeak, 15.2 artikuluan honakoa biltzen du: "Administrazio publikoek ezinduta daudenak eta haien familiak biltzeko elkarteak eta gainerako entitateak sustatuko dituzte eta haien garapena bideratuko dute. Halaber, laguntza finantzarioa eta teknikoa emanen dute haien jarduerak garatzeko eta interes sozialeko programak garatzeko hitzarmenak egin ahal izanen dituzte".

Kontuan hartu behar da zeinen egoera zaila duten Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea osatzen duten elkarteek, neurri batean Nafarroako Gobernuak ez duelako finantzatzen Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari eskatzen dizkieten programa guztiak, eta bestaldetik urtetik urtera dirulaguntza gutxiago jasotzen dituztelako eta programetarako dirulaguntzen deialdiaren ebazpena urtearen bigarren erdialdean egiten delako. Hori guztia dela eta, elkarteak egoera zailan daude, horietako batzuk porrot ekonomikotik hurbil, eta, horrenbestez, litekeena da ezgaituentzat beharrezkoak diren programak kendu eta deuseztatzeko beharrezko gertatzea.

Hori guztia dela eta, arazo horiei konponbidea emate aldera eta haiek saihesteko, eta jakinik ezgaituei laguntza ematen dieten elkarteek egiten dituzten oinarrizko programen jarraitutasuna beharrezkoa dela, egokia eta ezinbestekoa da egonkortasun ekonomikorako bermeak ezartzea, hori guztia bideratu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitearekin hitzarmen bat sina

dezan, halako moduan non egonkortasun ekonomikoa eta funtzionamendukoa bermatuko zaien, ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko programak gauzatzeko. Horri dagokionez, hitzarmenean, besteak beste, elkarte bakoitzaren oinarriko eta funtsezko programak, jaso beharreko

dirulaguntza eta ordainketak egiteko modua zehaztuko dira.

Iruñean, 2006ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Munduko ekonomiaren erronka berriak direla eta, beharrezkoa da Nafarroako ekonomiak eta, oro har, gure erkidegoko enpresek, beren aurrerapena eta lanpostuei eustea ahalbidetuko duten aliantzak eta sendotzeak bilatzea.

Parlamentu-talde honen iritziz, beharrezkoa eta premiazkoa da egungo eta epe ertaineko eko-

nomiaren egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta neurriak hartzea gure ekoizpen ehuna bultzatu, sendotu, dibertsifikatu eta deszentralizatzeke.

Irudimenarekin, balio erantsi gehiago duten ekoizpen prozesuen aldeko apustua egin behar da; puntako teknologia erabili behar da, gehiago inbertitu behar da gure langileen prestakuntza eta kualifikazioa hobetzeko, plantillak leia bihurtu eta enpresek alde egitearen aurka borrokatu behar da, ekimenezaleen bultzada eta gizartearen dinamismoa bideratu behar dira, aurrerapenaren bidean etorkizun batua bermatua izateko.

Horretarako, garrantzitsua da jarraitu beharreko bidea mugatuko duten neurriak eta proposamenak aztertzea. Zerikusia duten alde guztiek parte hartu behar dute horretan: Nafarroako Gobernua, enpresak eta enpresa-elkarteak, sindikatuak, ordezkari politikoak, langileak, unibertsitateak eta landu beharreko arloetako adituak.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan, ahal den bezain laster eta guztien partehartzearekin.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Eleduna: Fernando Puras Gil

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Arasko Udalari, bizi duen egoera larria gainditze aldera, diruz laguntzeko asmorik ba ote duen jakiteko.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Nafarroako Gobernuak Arasko Udalari, bizi duen egoera larria gainditze aldera, diruz laguntzeko asmorik ba ote duen jakiteko egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

– Aurreikusia al du Nafarroako Gobernuak Arasko Udalari diruz laguntzea, aurreko legegintzaldian eginiko kudeaketa negargarriaren ondorioz daukan egoera ekonomikoa gaindi dezan? Nolako laguntzak emanen zaizkio eta noiz ordainduko dira?

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, jakiteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zergatik ez duen hezurretako dentsitometria egiteko beharrezkoa den teknologiarik.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, jakiteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zergatik ez duen hezurretako dentsitometria egiteko beharrezkoa den teknologiarik. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Hezur-dentsitometria teknika egokia da hezur-masa neurtzeko. Osteoporosiaren ondorioz, hezur-masa eraldatu egiten da.

Menopausiaren aldian, emakumeak osteoporosia izateko arriskua izaten du; hori dela eta, pre-

bentziarako tratamenduak nabarmentzeaz gain, espezialistek aipatutako teknika, hezur-dentsitometria alegia, egitea eskatzen dute batzuetan.

Kontuan hartuta ikuskapen mota horren eskaera gero eta handiagoa dela eta medikuek gero eta gehiago eskatzen dutela, ulertezina da gaur egun osasun sistema publikoak teknika hori ez eskaintzea eta gaixoak Klinika Unibertsitariora bideratu behar izatea.

Osasun kontseilariak emaniko datuen arabera, azken bost urte hauetan proba hauek gero eta

gehiago egiten dira –954 hezur-dentsitometria 2000n, 54.340 euroko kostuarekin eta 1.425 proba 2005ean, 127.853 euroko kostuarekin–.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zergatik Osasunbideak ez dauka hezur-dentsitometria egiteko beharrezkoa den teknologiarik?

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, "San Frantzisko Xabierkoa" zentro psikogeriatrikoaren etorkizunari begira Osasun Departamentuak duen proposamenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea "San Frantzisko Xabierkoa" zentro psikogeriatrikoaren etorkizunari begira Osasun Departamentuak duen proposamenari buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren zuzendaritzak Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari eta Osasun Departamentuko kontseilariari "jarduera berrirako proposamenak" izeneko proiektua aurkeztu zien. Honela laburbiltzen zuten:

- Buruko gaixoentzako egoitza lagundu bat.
- Lanerako prestatzeko unitate bat.
- Tutoretza bidezko unitate bat.

Bestalde, zentro horretako ordezkari sindikalek publikoki kritiko azaldu dira hartutako konpromisoak ez betetzearekin.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zein da Osasun Departamentuak San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren etorkizunari buruz egiten duen proposamena eta zer konpromiso hartu ditu Nafarroako Gobernuak zentro horrekin?

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Etxalarko Landagain ikastetxe publikoko irakasleei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Etxalarko Landagain ikastetxe publikoko irakasleei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Etxalarko Landagain ikastetxe publikoak zalan-tza handiak ditu datorren ikasturteari begira, ezin

baita jakin gutxienez ere irakasleen kopuruari eutsiko zaion 2005-2006 ikasturtean, lanaldi murrizketa batzuk egonen direlako.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Kontuan izanda agian Landagain ikastetxe publikoan lanaldi murrizketa batzuk egonen direla, bermatu behar al du Hezkuntza Departamentuak 2006-2007 ikasturtean ikastetxe horretan irakasleen benetako kopurua ez dela jaitsiko?

2.- Lanaldi murrizketarik egonez gero, bertutuko al du Hezkuntza Departamentuak ordu horiek beste irakasle batzuek beteko dituztela, eta ez gaur egun ikastetxe horretan lan egiten dutenek?

3.- Argi dago ikastetxe horretan gero eta ikasle gehiago dagoela. Aurreikusi al du Hezkuntza Departamentuak ikastetxeko instalazioak egokitztea (zabaltzea) ikasleen eskariari erantzuteko?

Iruñean, 2006ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Bidasoan ibaian ugalketarako bideratutako izokin-arrautzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Bidasoan ibaian ugalketarako bideratutako izokin-arrautzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Bidasoa ibaiaren ibilbide nagusiko erdiko eta goiko tarteetan izokinkumeak birsartzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Ingurumen kontseilari José Andrés Burguete Torres jaunak sinatutako idazki batean –komunikabideei zuzendu zien eta maiatzaren 11n argitaratu zen–, honako berria ematen zen:

a) “1989tik 2005era Mugairiko instalazioetan 2,2 milioi izokin-arrautza baino gehiago ekoiztu ziren ibai bereko ugalketarako izokinetatik –ugalketarako izokin horiek Berako harrapaketa eta kontrol estazioan hautatu ziren–; guztiak Bidasoa ibaiko urteko ugalketarako erabili dira”. Horixe da testuak dioena.

b) “Ekoiztutako izokinkumeak nagusiki ibilbide nagusiko erdiko eta goiko tarteak birpopulatzeko

erabili dira; izan ere, tarte horietara ez da izokina modu naturalean iristen. Posiblea izan den guztietan, izokinkumeak lortu dira itsasoan bi negu pasa dituzten ugalketarako izokinen gurutzatze selektiboaren bidez. Udaberriko 1,15 milioi izokinkumeri buruz eta urtebeteko 160.000 izokin gazteei buruz ari gara." (Kontseilariaren esaldiak hitzez hitz eman dira, baina azpimarrak sinatzailearenak dira)

Arrantzari buruzko lege indardunak sortu duen polemika dela-eta, eta jakinik ekainaren 15era arte izokinaren arrantza debekaturik dagoela behin zortzigarren alea arrantzatzen den momentutik, eta kontuan hartuz jendearengan, oro har, eta bereziki izokinaren arrantzan zaleak direnengan edo arrantza mota horretan aritzen direnengan dagoen sentiberatasuna, honakoa jakin nahi dugu:

1. Zenbat izokin-arrantza erabili dira, urtez urte, 1989tik 2005era bitarte, horiek baitira kontseilariak aipatu dituen urteak, Bidasoa ibaiko urteko ugalketarako?

2. Zehazki, ibilbide nagusiko erdiko eta goiko tarteetatik zeinetan egin dira kontseilariak aipatzen dituen birpopulatzeak eta zenbat izokinkume eta izokin gazte utzi dira tarte horietako bakoitzean?

3. Kontseilariak emandako azalpenen arabera, izokinak, erabili dira, nagusiki, ibaiko ibilgua eta izokina modu naturalean iristen ez den tarteak birpopulatzeko. Zein beste helburu, kanpaina eta erabileratarako erabili dira gainerako 2,2 milioi izokin-arrantza, udaberriko 1,15 milioi izokinkumeak eta urtebete baino gehiagoko 160.000 izokin gazteak? Utzi, oparitu, saldu edo eman al zaie entitate publiko nahiz pribaturen bati, elkarte edo entitateren bati? Hala bada, zeini, eta zein herri eta lurraldetan du helbidea?

4. Auzi horri buruz dagoen beste edozein informazio osagarri ere jaso nahi nuke.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai

Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuak Biblioteca Nueva argitaletxearekin lau liburu argitaratzeko duen akordioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Kultura eta Turismo Departamentuak Biblioteca Nueva argitaletxearekin lau liburu argitaratzeko duen akordioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2006ko maiatzaren 4an, bi galdera egin nizki on Nafarroako Gobernuako kontseilariari, jakiteko Madrilgo zein argitaletxek kaleratu zuen Arbeloa

jaunaren liburu bat eta zenbat diru ordaindu zuen Nafarroako Gobernuak liburu hori argitaratzeko.

Zure erantzunean, Eusko Alkartasuna taldeak gaiari buruz aurkezturiko ekimenak aipatu eta haiei emandako erantzunak zein aldizkaritan dauden adierazi zenidan.

Jakinarazi behar dizut ni konformatzen naizela nire galderei Erregelamenduan ezarritako epean erantzutearekin, eta ez dudala behar beste talde batzuek egiten dituzten galderei buruzko informazioa.

Halaber, informazioa eman zenidan Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuaren ekimenez liburuak Madrilgo Biblioteca Nueva argitaletxean argitatu dituzten autoreei buruz.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zer hitzartu du Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuak Madrilgo Biblioteca Nueva argitaletxearekin ondoren adierazten dizkizut lau liburuak argitaratzeko?

1. *Tamas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra.*

2. *Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino.*

3. *Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra.*

4. *Perversiones políticas del Lenguaje.*

• Zergatik ez zaie lan hau enkargatu Nafarroako argitaletxeei, hartara Nafarroako Foru Komunitateko argitaletxeen sektoreari laguntzeko eta hura hobetzen saiatzeko?

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, nanoteknologiako ikerkuntza zentroaren kokalekuari eta betetzeko eperari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, nanoteknologiako ikerkuntza zentroaren kokalekuari eta betetzeko eperari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

• Nanoteknologiako ikerkuntza zentrorako zein kokaleku aurreikusi da eta zein da hura eraikitzeko epea?

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, ezgaituen zentro berekietan egin beharreko inbertsioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egindako galdera, ezgaituen zentro berekietan egin beharreko inbertsioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Apirilaren 18ko 114/2006 Ebazpenaz, ondoko aurrekontu-doikuntza egin da Gizarte Ongizate Zuzendaritza Nagusiko kontusailen artean:

Kargua egin den kontusaila: 910001-91300-6020-231700 "Inbertsioak haur eta gazteentzako zentro berekietan", 500.000,00 €.

Ordainketa egin den kontusaila: 910001-91300-6020-231300 "Inbertsioak ezgaituentzako zentro berekietan", 500.000,00 €.

Aurreko emaitzak ikusirik, hona gure gomen-dioak:

Zein inbertsio eginen dira? Horietako bakoitzean erabiliko diren kopuruak eta inbertsio horiek ukituriko zentro berekiak zehaztea nahi dugu.

Iruñean, 2006ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Iñigo

Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara antolatu diren ekitaldi eta kontzertuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara antolatu diren ekitaldi eta kontzertuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernu baliabide publiko ugari

ari da erabiltzen Frantzisko Jatsukoaren jaiotza ospatzeko ekitaldi eta kontzertuetan.

Dirudienez, ikus-entzuleen kopurua ez da uste zena izaten ari eta, horregatik, hasierako planak aldatu egin dira.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Xabierren antolaturiko jarduera edo kontzerturen bat beste lekuren batera eraman al du Nafarroako Gobernuak?

– Hala bada, zein jarduera aldatu dira lekuz eta zein zen haietako bakoitzaren aurrekontua?

– Zein izan dira aldaketa horiek egiteko arrazoiak?

– Hala bada, ikus-entzuleen aldetik, zein emaitza lortu dira aldaketa horiekin?

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Ekainaren 13an, Nafarroako Comptos Ganberak Garesko Udalaren 2004ko ekitaldiari buruz eginiko fiskalizazio txostena ezagutu dugu.

Txosten horretan, irregulartasun ugari agertzen ziren atal gehienetan. Horiek agerian uzten zuten baliabide publikoak arduragabekeria handiz erabili direla. Adibideak: aurrekontuen likidazioa, ondare egoera, legezketasuna, egoera ekonomiko eta finantzarioa, musika eskola, udal lurzoruaren patronatua, tributu bidezko dirusarrerak eta dirusarrera publikoak, ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea, zerbitzuen adjudikazioa eta abar.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

– Uneren batean egin al du Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren jardueren gaineko legezketasun kontrola?

– Aurreikusia al du edo beharrezkotzat jotzen al du udal horren jardueren gaineko legezketasun kontrolen bat egitea?

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

IZENDAPEN PROPOSAMENA

Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketaren epaimahaiak izendapen proposamena igorri du ekainaren 15ean, deialdi hori gainditu duten bi izangaien alde. Deialdia lehendakari honen 2005eko apirilaren 1eko erabakiaz onetsi zen, eta 2005eko apirilaren 18ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta egun bereko 46. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Izendapen proposamena ikusita, lehendakari honek, deialdiko 7. oinarriko 2. idatz-zatian ezarritakoari jarraituz,

ERABAKI DU:

Lehena. Oposizio-lehiaketako epaimahaiak ekainaren 15ean igorritako izendapen proposamena, dagokien txandetan deialdia gainditu duten bi izangaien aldekoa, jasotzat ematea eta onartzea. Hona:

Izen-abizenak	Puntuazioa, guztira (100 puntutik)
<i>Txanda irekia:</i>	
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	75,73
<i>Txanda murriztua:</i>	
Ezquerro Royo, José Luis	53,11

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea, eta proposaturiko izangaiei adieraztea proposamen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, 30 egun naturaleko epean, deialdiko 7.3.1 oinarrian ezarritako agiriak Comptos Ganberan aurkeztu beharko dituztela.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Comptos Ganberako lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 43,95 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	---